

Haur eskoletan gaztelania ere bai?

EUSKO LEGEBILTZARREAN jarrera harrigarria hartu du EAJk. PPrekin eta UPyDrekin batera Haurreskolak Partzuergoko eskoletan gaztelania ere erabiltzea onartu du. Gaur egun haur eskola publikoetako haurrak euskaraz baino ez dira aritzen.

Arrue ikerketaren emaitzak jakin berri ditugu eta eskolak haur-gazteak eskalduntzeko eta hala mantentzeko betetzen duen funtzio ezinbestekoa begi-bistan geratu da. Arrue proiektuari buruzko jardunaldian, eskolak euskararekiko betetzen duen egitekoaz ondoko terminoak entzun ziren: gotorlekua, atmosfera kontrolatua, kontrapisua... Gero eta gehiago dira euskara etxetik ez dakarten ikasleak

eta asko gaztelaniak inguratuta bizi dira egunerokoan. Haur eskolak iriak dira ume askorentzat. Bitxia da EAJ-ren erabakia, PPk proposatutakoak ez baitio onik egingo euskarari. PPren iritziz, umeak etxetik erdaldun izatea kontuan hartu behar da, gurasoen borondatea era bai, eta eskualdekako errealitate soziolinguistiko diferentek ezin dira ahaztu. Hau da, haur eskoletan gaztelania ere bermatu behar da. PPk dio bi hizkuntzak direla ofizialak eta bien erabilera bermatu behar dela. Jakina da ordea, hiztun haur-gazteek ez dutela inolako arazorik 16 urterekin, legeak agindu bezala, gaztelania menperatzeko, eta aldiz, euskaraz herren egiten dute.



ARGIA

Bahea

Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskara ikasteko izen-emateen jaitsieraz Berrian esanak:

“Prestigioarekin du zerikusia. Ez nator bat esatean krisiak azaltzen duela jaitsiera. Izan dezake eragina, baina euskara ikasteagatik baino gehiago ordaintzen bada beste hizkuntza batzuk ikasteagatik, eta horietan ez bada beheakadarik gertatu, krisiarekin ezin azal daiteke. Krisian egon, eta, gainera, euskara ikasteari ez bazaio behar den adinako balio sozialik aitortzen, ez bazaio behar besteko prestigioarik

ematen, alde batera uzten da. Horri buelta ematen ahalegindu behar dugu. Jaurlaritzaren mezuak garbia izan behar du: euskararen ausia bizikidetzaren sozialaren ausia da. Euskara zenbat eta indartsuago izan gure arteko bizikidetzaren sendoagoa eta harmoniatuagoa izango denez, aktiboki bultzatu behar dugu euskara ez dakiten herritarrek ikasteko pausoa eman dezaten”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Athletic-ek pribilegio fiskalak al ditu?

EL CORREO ESPAÑOL egunkariaren arabera “Athletic-eko jokalariek dagokien PFEZaren erdia ordaintzen dute”. Egunkariak azaldu duenez, 300.000 eta 3 milioi euro arteko soldatak jasotzen dituzte. 300.000 euro irabazten dituen finantza zuzendaria balitz, urtero 124.086 euro ordaindu beharko litzioke Bizkaiko foru ogasunari PFEZagatik, hau da, irabazitakoaren %42,22. Athletic-eko jokalariai, Aldundiaren interpretazio onberari esker, 50.586 euro baino ez ditu ordaintzen, hau da, irabazten duenaren %18,86. Hiru milioi euro irabazten dituen Bilbon ezarritako multinazional bateko presidentea balitz, 1.339.086 euro ordaindu beharko litzuke, %42,22 alegia. Zergaduna Athletic-eko jokalaria denez, soilik 664.086 euro ordaintzen ditu, irabazitakoaren %22,14. Hain justu portzentaje hori ordaintzen dute urtean 15.000 euro baino gutxiago irabazten duten zergadunek; ez dira Athletic-eko jokalariai, bistan denez. Laburbilduz, Athletic-eko

jokalariek erdia ordaintzen dute, agian hori baino gutxiago ere bai.

Bilboko jokalariai talde osoak 48 milioi euro baino gehixeago irabazten du urtean. Batez besteko %20ko zerga tasa aplikatuta, jokalariek 10 milioi euro ordaintzen diote Ogasunari. Gainerako zergadunen aitortpen bera egingo balute, 21 milioi euro joango lirateke foru kutxetara. Ogasunak 11 milioi euro “barkatzen” dizkie jokalariai.

Pribilegio bera al dute Realeko, Osasunako edo saskibaloiko jokalariek? Zergatik halako jokaera fiskal pribilegiatua, Ogasunak beste zergadunak eraso eta zukutzen dituen bitartean? Krisiarekin, ogasunak diru bila dabilta. Gehien dutenengana jo eta iruzur fiskalarekin amaitzeaz gain, kirolariei egiten zaizkien halako faboreak ere ezabatu behar dira, izan Athletic-ekoak edo beste klubetakoak.

Juan Mari Arregi

